

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak



Hurbil

NATALIA COLOMBO

Itzulpena: FERNANDO REY ESCALERA

Pamiela-Kalandraka, Vigo, 2008

Sinpletasunean kontu sakonak

2007ko amaieran hasi ziren Pamiela eta Kalandraka argitaletxeak elkarrekin lanean. Elkarlan horren lehen ekarpena *Gerlari handia* albuma izan zen, Pello Añorgak idatzi eta Jokin Mitxelenak ilustraturiko liburu hori Etxepare bekaren emaitza izan zen. Orain komentatzen dugun beste lan honek, berriz, Album irudidunentzako Nazioarteko I. Compostela saria jaso zuen 2008an.

Hurbil, lehenago ere aipatu izan dugu, album bat da. Bi kodek, idatzizkoak eta irudizkoak, osatzen dute liburua eta bien arteko harremanaren ondorioz jasotzen dugu mezua. Kontakizunean ez dugu testu asko aurkitzen, esaldi laburrak ditugu irudietako mezua osatzen («Ahate jauna, egunero bezala, lanera joan da»), eta liburu guztia ideia baten inguruan eraikita dago. Ahate jauna eta Untxi jauna, egunero gurutzatzen dira kalean eta «ez dute inoiz elkar agurtzen»; beti elkarren ondoan eta beti bestea ikusten baina, hala ere, ez diote ezer esaten elkarri eta penagarria da egoera hori, izan ere, liburuaren amaieran esaten diguten bezala «adiskide minak izan litezke».

Natalia Colombo argentinarrak elkarri bizkarraren emanda bizi diren bi pertsonaren istorioa

6+

kontatzen digu (irudietan eskuinean dagoena eskuin aldera begira agertuko zaigu eta ezkerrekoa ezkeraldera) eta horretarako esan baino iradokitzen duten irudiak erabili ditu; kolorearen eta aurpegien trazu sinpleen bidez alaitasuna, bizitasuna, tristura... islatuz. Baina, gainera, irudien eta testuaren erritmoak oso lortuak daude irakurle/ikuslearengan sortu nahi den efektua eragiteko. Aurkezpenaren ondoren noiz, non eta nola gurutzatzen diren ikus dezakegu; Untxi eta Ahate jaunak lanerakoan, etxerakoan, parkean, patxadan doazenean, triste daudenean... gurutzatzen dira baina ez dute inoiz elkar agurtzen, eta irudi hutsezko orri batzuen ondoren pena bat dela esaten zaigu, adiskideak izan litezkeela (eta ideia hau indartzeko Untxi eta Ahate jaunak ikus ditzakegu elkarrekin hitz egiten, bidaiatzen, laguntzen, jolasten... denbora guztian bata besteari begira).

Haurrentzako liburuak, onak badira, helduentzat ere aproposak izan behar dira. Jakina, inoiz ez dugu irakurketa bera espero behar haur eta heldu baten kasuan, norberaren esperientzia eta jakintza oso ezberdinak direlako, baina liburu onak bientzako egokiak izan behar dira, irakurketa maila ezberdin horiek asetzeko modukoak. *Hurbil* honek haurrentzat istorio sinplea eta polita dirudien bezala, inkomunikazioaz eta bizi dugun gizarteaz gogoeta egiteko liburu dugu helduok. Bera sinpletasunean kontu oso sakonak azaltzen dituen liburuak.

Xabier Etxaniz Erle



Ipuin-kontalaria

Pello Añorga

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

Aizkorri, Bilbo, 2008

Baten prezioan, hamaika istorio

Oso zaila da hain orrialde gutxitan halako konplexutasun narratiboa topatzea. Hala ere, Pello Añorga *Ipuin-kontalaria* honetan saiatu da, eta emaitza dotorea lortu du haur txikiaren ulermenaren kalterik gabe.

Funtsean, *Ipuin-kontalaria* metanarrazio bat da, ume-talde baten aurrera ipuin bat kontatzen doan kontalari baten jardunaren deskribapena, narrazio baten kontakizuna. Baina nobedadea da metafikzio horren narrazioa ez datorrigula bere lanari buruz gogoeta egiten duen narrazioaile batengandik, kontaketaaren lekukoa den ume batengandik baizik. Lekuko hori ume-talde osoaren ordezkari den «gu» baten bidez mintzatzen da, objektibotasun handiz mintzatu ere.

Eta, gure begien aurrean, txinatar kutxen jolasa zabaltzen da. Kutxarrik handiena, noski, eskuartean dugu liburua da; horren barruan istorio nagusia dago: ipuin-kontalariaren saioaren narrazioa; horren barruan dagoen hurrengo kutxa ez da metaforikoa, benetakoa baizik: «ipuin-kontalariak kontatzeko erabiltzen duen kutxa, dena hitzez, letrez eta zirroborroz hornitua»; bertatik aterako

du kontalariak hurrengo «kutxa», urrezko liburu bat; horren barruan, berriz, ipuin-kontalariak kontatuko dituen bigarren mailako istorioak.

Eta, kutxa guztiak zabaldu diren gisa berean, itxi egingo dira geroxeago; denak, bat izan ezik:

«Ate zuri-beltza itxi, urrezko liburua itxi, kutxa dena itxi, eta esan digu Ipuin-kontalariak gure begiei begiratu, leihoak izango balira bezala:

–Itxiak ala irekiak?

–Eta guk erantzun:

–Irekiak.

–Eta Ipuin-kontalariak gaineratu digu:


–‘Zuen begiak leiho irekiak’. Eta kutxa hartu, eta ipuina bukatu».

Horrelaxe ixten da, Ipuin-kontalariaren ipuina ez ezik, haur lekukoaren narrazioa ere.

Ipuin-kontalaria liburua ipuinak ahoz zein idatziz kontatzearen ofizioa oso ondo ezagutzen duen egile baten ohiko baliabideez beterik dago: entzule/irakurleen arreta bereganatzeko formula errimatu ugari (batzuk besteak baino lortuagoak), interpretazio anitzak izan ditzaketen figurak, ustekabearen erabilera, irakurle txikiarentzat (*Txanogorritxo*) edo kozkorragoarentzat (*urrezko giltza*) identifikagarriak diren testuartekotasun-jolasak, eta lanean hasi zenetik gaur egun arte defenditu duen umeak inozoak ez direlako premisa garrantzitsuari erantzuten dioten metaforak, kasu honetan munduari zabalduko ateak eta leihoak.

Gainera, idazlearen eta irudigilearen arteko kimika onak ez du hutsik egin: Mitxelenaren irudiak maila bikainekoak dira, eta testuarekin batera batasun biribila osatzen dute.

Manu López Gaseni



Nikoleta eta gaua

Eider Rodriguez

Ilustratzailea: ARRATE RODRIGUEZ
Elkar, Donostia, 2008

Gauzen zergatia umei azaldua

Eider Rodriguez helduentzat idatzi dituen bi ipuin bildumengatik (*Eta handik gutxira gaur* eta *Haragia*) da ezaguna euskal letren mundutxoan, eta *Nikoleta eta gaua* hau da haurrentzat idatzi duen lehen obra.

Beste batzuetan mintzatu naiz haur literaturako idazle bihurtutako Elkar argitaletxeko helduentzako idazleen fenomenoaz. Ez dut gai horretaz beste ezer gaineratzeko, ez bada oraingo honetan umeen alorrera lehen aldiz etorritako idazleak jakin duela, intuizioz edo borondatez, bere lana tradizio batean kokatzen.


Nikoleta eta gaua lehen irakurleei zuzendutako testua da, eta ume txiki baten beldurrak ditu kontagai, gauari dion beldurra zehazki. Izan ere, «Nikoletak koloreak eta txoriak maite zituen, baina gauean, dena ze iluna eta isiltasuna». Ipuineko testuak bakarrik uzten du Nikoleta bere beldurren aurrean: ez ama ez aitarik ez da ageri, eta pasarte batean eskolan eta hurrengoan berriro etxean agertzea elipsiaren bidez konpontzen da arazorik gabe. Laguntzaile bakarra hain maite dituen txorietako bat da, mika zaharra; eta harengandik datorkio bere arazoa konpontzeko irtenbidea. Beste hainbestetan bezala, haur literaturan

planteatzen den gatazka arazoa onartzearen edo ulertzearen bidez konpontzen da, arazoaren desagertzearen bidez ebatzi beharrean. Nikoletak mikaren bitartez jasotako azalpena fantastikoa izatea, berriz, ez da eragozpena, eta ezin hobeto ezkontzen da umearen mundu ikuskera magikoarekin. Eta zeregin horretan zeresan handia dute Arrate Rodriguezen irudi koloretsu iradokitzaileek (aukeran hobeak amestutako munduak aditzera ematen figurazioan baino). Azken batean, mika zaharraren funtzioa haurrak lasaitzea baitzen, haiek ulertzeko moduko azalpenen bitartez: «Nikoletari sekretutxoa kontatu ondoren mika lasai joan zitekeen munduko beste txoko batzuetara, umeek gauari zioten beldurra uxatzera».

Hasieran esandakora itzuliz, *Nikoleta eta gaua* haur literaturako tradizio eder batean kokatzen da, «gauzen jatorri fantastikoak» ematen saiatzen diren hainbeste istorioren tradizioan, hain zuzen ere. Idazle askok sentitu dute halakoak idazteko beharra, helburu desberdinekin izan bada ere, gizarte kritika satirikotik haurren barne kezken aringarrietara, erlijio guztietako genesiak ahaztu gabe. Gure artean, esaterako, Ruben Ruizen *Nora joan da argia?* edo Mendiguren Elizegiren *Zergatik ez du kantatzen txanxangorriak?*, urrunagokoen artean Michael Grejniec-en *Nola dastatu ilargia?* edo Guido van Genechten-en *Maitagarria zarelako*. Baina nik tradizio horretan maiteen dudan lana duela mende bat baino gehiago Rudyard Kipling-ek argitaratutako *Just So Stories* izeneko klasiko hura da (euskaraz itzulpen bat baino gehiago izan dituena; azkena *Horrelaxe* izenarekin, oker ez banago). Esaten denez, Kiplingek bere umei kontatzen zizkien istorioak dira, mundu zabal ezezaguna gozo-gozo azaltzeko: nola eskuratu zituen lehoinabarrak bere oreztak, nola lortu zuen elefantekumeak bere tronpa, gameluak nola lortu zuen bere konkorra, eta abar.

Katea, nonbait, ez da eten.

M. L. G.



Ipuinen haria
 Ferida Wolff eta Harriet May Savitz
 Ilustratzailea: ELENA ODRIUZOLA
 Itzulpena: UXUE ALBERDI
 Tarttalo, Donostia, 2008

Adiskidetasunaren haria

«Egun batean, Nikolairen zapata zulatuta zegoela ikusi zuen Babba Zarrah-k.» Honela has-tean da Ferida Wolff eta Harriet May Savitz idazle ingelesek idatzi eta Elena Odriozolak ilustraturiko liburu hau. Babba Zarrah ipuin kontalariak Nikolai-ri galtzerdi batzuk egitea pentsatzen du baina «neguan elurra egin zuen goian-behean, milioika elur maluta jaitsi ziren zerutik, eta inork ezin izan zuen herrixkara artilerik eramán». Nola konpondu orduan arazo hori? Nola eskuratu galtzerdi horiek egiteko artilea? Babba Zarrah-k dioen bezala ez dago erantzunik gabeko galderarik eta emakume zaharrak aurkitu zion konponbidea arazoari.

Abiapuntu honetatik eramaten gaituzte liburu eder hau egin duten hiru egileek. Ipuin kontalariak tapaki baten gainean daudela kontatu ohi dizkie haurrei istorioak eta, hain zuzen, tapaki hori izango da artilea eskuratzeko bidea. Tapakiari zatitxo bat kendu eta horrekin lorturiko artileaz galtzerdiak egingo dizkio Nikolairi, baina baita bufanda luze eta beroa postariari ere, eskularru pareta maisuari, mantal berria Ivanov andrearari... eta horrela, inork jakin gabe nondik agertzen ziren operari zehatz eta beharrezko horiek, herriko biztanleen bizitza apur bat gozatzeko ari da negu gogorrean eta, era berean, «herritarren jakin-mina haziz zihoan

6+

mendian behera doan elur bolaren antzera».

Azkenean ume batek argitu zuen misterioa postaria bufandarekin, Ivanov andrea mantalarekin, maisua eskularruekin, Olga haurtxoa bere tapaki leun berriarekin eta dendaria xal dotorearekin ikustean: «Babba Zarrah-ren ipuinetako tapakia dirudi honek!», eta orduan konturatu ziren ipuin kontalariak tapakia sakrifikatu zuela herritarren artean banatzeko.

Hortik aurrera herritarrek harturiko erabakiak eta ipuinaren amaiera irekiak (ziklikoa esan beharko genuke) irakurlearengan adiskidantza eta laguntasunaren baloreak indartzen dituzte ipuinari amaiera oso lortua emanez.

Ipuinean zehar tentsioa gero eta handiagoa da; irakurleak ikusten du ipuinen tapakia gero eta txikiagoa dela, haurrek gero eta estuago egon behar dutela ipuin kontalariaren etxean, baina baita, horrekin batera, eskuzabaltasuna eta adiskidantzen konplizeak gara; eta baita herritarren artean zabaltzen ari den jakin-min gero eta handiagoren lekukoak ere. Kontakizunaren erritmoa helburu horren atzetik eginkoa dugu, eta kontakizun horretan, irudi liburu onetan ageri behar den bezala, hitzek eta irudiek dute garrantzia.

Elena Odriozolaren irudiek ederki osatzen dute idazleen lana. Ipuinaren testua idatzizko kodeaz eta irudikoaz osaturik dago, biek ematen digute informazioa, eta Uxue Alberdik eginko itzulpen lan onaz gain, Elena Odriozolaren ekarpen eder eta lortua dugu. Ia-ia arrastorik gabeko aurpegiek adierazten duten sentimendua, paisaia elurtuak islatzen duen sentsazioa, eta batez ere elurra eta hotzaren zuritasunaren parean koloreak egiten duen efektu alai eta bizia dauzkagu Odriozolaren irudietan.

The Story Blanket dugu ipuin honen jatorrizko izenburua eta aurrean bertan plazaratu da Londonen. Alde horretatik poztu behar gara euskal ilustratzaile baten lana kanpoan hain baloratua ikusteagatik, baina, horren gainetik, poztu behar gara album eder hau euskaraz irakurtzeko aukera ere badugulako.

Xabier Etxaniz Erle



Rita eta Totto eskolan
 Jean-Philippe Arrou-Vignod
 Ilustratzailea: OLIVIER TALLEC
 Itzultzailea: AZTIRI itzulpen zerbitzuak
 Tarttalo, Donostia, 2008

Itxura xumearen azpian

Rita eta Tottoren istorioen inguruan sail berri bat ireki du Tarttalo etxeak. Bertan, orain arte, bi lan argitaratu dira: lehena, protagonista biak aurkeztu eta nola «ezagutu» zuten elkar kontatzen digun liburua, eta bigarrena protagonista biak eskolan.

Jean-Philippe Arrou-Vignod era askotako testuak idatzi dituen idazlea dugu; gazte literaturan, esaterako, baditu hainbat eleberrizko poliziako. Horrelako lanen ondoan, haur txikiarentzako liburu ederrak idazteko gai ere badela erakusten digu oraingo honetan. Testu sinpleak, esaldi labur eta gutxi batzuen bidez osaturiko narrazioa eta irudi guztiz adierazgarriak dituzten lanak dira Rita eta Tottoren istorioak.

Lehen liburua, *Rita eta Totto* izen orokorra duena, egoera bitxi baten deskribapenarekin hasten da: «Ritaren urtebetetze-eguna da, baina muturtuta dabil», irakurleak Ritaren gurasoen hankak ikus ditzake ezker aldean; eskuinean, berriz, neskak bat operari bati ostiko bat ematen. Ritaren haserrea jakin-min bilakatzen da operari bat mugitzen hasten denean; azkenean, harrapatu eta bertatik txakur bat ateratzen du. Horrela aurkezten zaizkigu sail honetako protagonistak. Eta horixe da, hain zuzen, lehen liburua horren helburua.

Rita eta Totto eskolan liburua, berriz, osatuagoa

da. Oraingoan ere egoera berezi batetik abiatzen dira liburugileak istorioari heltzeko: «Andereñoak esan zuen: Ezin duzue panpinarik ekarri eskolara. Amorratuta dago Rita. Denbora gehiegi da Ttoto beste izenik ez duen txakurra ikusi gabe egoteko», eta testu horren ondoan Rita pentsakor eta Ttoto lurrean etzanda; lehenengo begi biak itxita, ondoren bat irekita eta Ritari begira. Amorratuta dagoen Rita ez da gelditi egoten diren horietakoa eta Ttoto eramango du eskolara; hori bai, liburu zorrotik irten gabe ibiltzeko baldintzarekin. Eskolan gertakari batzuen lekuko izango gara: marrazki batean ageri diren zirrimarrak, giza piramidea nola erortzen den norbaitek bultzatu duelako, bazkal orduan plateretik desagertzen den janaria... eta irudi errealista, ia kolorerik gabe (zuri-beltzean daude puntu deigarri gorri batzuekin bakarrik) baina erabat lortuen bidez misterio horien guztien berri izango du irakurleak, baita irribarrea ezpaineratu idazkiak dienez haratago irudiak bestelako informazioa ematen duelako ere. Eta horixe da, neurri batean, liburu honen lorpen handienetarikoa, irakurlea harrapatzen duela testuaren eta irudiaren arteko informazio osagarri horren bidez; harrapatu gozatzeko, Ttottonen bihurrikeriekin irria aurpegiratzeko. Amaierak, gainera, sorpresatxo bat dakar. Ttoto txakurrak egindakoez gain, Ritari ere oparixto bat egiten diolako egun osoan liburu zorroan edukitzeagatik.

Zalantzarik gabe Jean-Philippe Arrou-Vignoden testuak oso egokiak dira, zehatzak, argiak, hitz gutxikoak. Beste alde batetik, Olivier Tallegen irudiak, beren sinpletasunean —errealistak, trazu gutxi batzuen bidez adieraziak— oso lortuak dira. Espazioekin, zuriuneekin, irakurlearen arretaguneekin jolastuz batzuetan eta mugimenduarekin besteetan, kontatu nahi duenetik haratago eramaten du irakurlea. Alde horretatik oso adierazgarriak dira lo kuluxka orduan, eskolan ume guztiak lotan daudela irudikatzen dugun bitartean, nola azaltzen zaigun Ttoto pintadak egiten, dantzatzen —airean eginiko saltoa ere ilustratuz— edo barrabaskeriatan.

Irudi liburuetan oso garrantzitsua da testua eta irudia interpretatzen ikastea, biak «irakurtzea». Sail honetako liburuak oso aproposak dira horretarako, beren sinpletasunean oso ongi landutako obrak direlako. Itxura xume horren azpian artelan batzuk daudelako.

Xabier Etxaniz Erle



Ez zait irakurtzea gustatzen

Pako Aristi

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

Elkar, Donostia, 2008

Koxka bat estuago

Dirudienez, Pako Aristik ezin dio bere izaera moldakaitz eta polemikoari eutsi, ez eta haur literatura bezalako eremu pedagogiko eta politikoki zuzenean aritzen denean ere. Ezaugarri hori are nabarmenagoa da «Eta zer?», desberdinak sentitzen diren haurrentzako sendabidea izan nahi duen bilduma honetan (gogoratu *Potoloa naiz*, *Beldurtia naiz*, *Etxe bitan bizi naiz*, *Alaba adoptatua naiz*, eta abar), irakurzaletasuna bezalako totem sendo eta ukiezin baten kontra harrika hasten denean.

Liburuko protagonista Nemesiori ez zaio irakurtzea gustatzen, eta bere desgustua bermatzera datozen egoerak aurkezten dizkio irakurleari. Opor aurreko azken egunean jaiegun jakin batzuetarako irakurgaia gomendatzen/agintzen duen irakaslearen ohiturazko koadrotik abiatuta, Nemesioren fobia pertsonala orokortu eta unibertsaldu egiten da argudio-segida baten bitartez: liburuek txatxutu egiten dute jendea, irakurtzeak bakartu egiten zaitu eta egin beharreko gauza praktikoak ahaztarazten dizkizu, bizkarreko mina eragin dezake, irakurtzearen erruz nobioa gal edo eritasunen bat harrapa daiteke, irakurtzea eta idaztea besterik egiten ez dakitenean azken heldulekua

da, eta abar. Hori guztia gutxi balitz, liburu baten diruarekin zortzi *aquarius* eros daitezkeela jakinda, dena dago esanda.

Guztiarekin ere, aurkiarekin batera ifrentzua ere eskaintzen zaio irakurleari, albo-kalte saihestezinak besterik ez balira bezala: tira, irakurtzea atsegin baduzu alkoholismotik salbu gera zaitezke, eta zu bezalako beste martziano-irakurle bat ezagutuz gero ligatu ere egin dezakezu. Gainera, lerro artean ikusten den legez, eta aitaren eta anaiaren jarrerari erreparatuta, liburuekiko gorrotoa gurasoengandik jaso daitekeen gaixotasun genetikoak izan liteke...

Ez zait irakurtzea gustatzen, bistan da, testu hiperbolikoa da, gehiegikeria balio estetiko bihurtzen duena. Gauza jakina da, orobat, eskola adinean testuak irakurri eta ulertzeko gaitasuna, oinarritzko trebetasun instrumentala izateaz gain, goi-mailako buru-jarduera konplexua dela. Abiapuntu horretatik, eztabaida ugari eragin ditu gaitasun hori eskuratzeko jokoan jarritzen diren prozeduren aldetik. Daniel Pennac frantses idazleak, oraindik orain eskolari buruzko liburu berri bat plazaratu baitu, hainbatetan errepikatu den esaldia idatzi zuen *Comme un roman* liburuaren hasieran: «irakurri aditzak ez du aginterako formarik onartzen». Gure artean, Victor Morenok sarritan ironizatzen du irakaskuntza-sistemak gaitasun inguruan erakutsitako ortodoxia xaloaz.

Azken batean, Pako Aristiren liburuak paradokotik ere badu: irakurtzea gustuko ez duen umeari buruzko istorioak harrapatu egiten du irakurlea, testua hasieratik amaierara irakurraraziz, nahiz eta keinu asko eta umorea sortzeko baliabide batzuk helduei zuzenduago egon umeari baino. Istorioari egindako keinu mingotsa da: bere testuak beste inorenak irakurri gabe bihurtutako idazlearena.

Amaitzeko, iruditu zait Jokin Mitxelena irudiak, pare bat kenduta beharbada, bere ohiko maila bikainaren batez bestekoaren azpitik daudela, beharbada (irakurle beldur baten) polemikoa izango den liburu honetan.

Manu Lopez Gaseni



Markel Gelazikin

Leire Bilbao

Ilustratzailea: EIDER EIBAR

Elkar, Donostia, 2008

Piztia Markelen gelan

Lan baten izenburuak pista ugari eman ditzake lanari buruz; are gehiago, kasu honetan bezala, izenburua helburu horri jarraiki egina denean. Genetten paratestuekin jarraituta, antzeko zerbait esan genezake azalean ageri den ilustrazioaz, eta bi horiei erreparatuta irakurleak ikus dezake mutiko bat dugula protagonista liburu honetan, gela zikina duen mutikoa, eta garbitu beharrean beste kontu batzuetan aritzen dena erratzarekin.

Alberto Manguel dio idazketa bi prozesuren ondorioa dela: alde batetik, oroitzapenen ondorioa, lehengo oroitzapen edo esperientzia baten birsorkuntza dela; eta, bestetik, gauza bat leku batetik bestera eramatearen ekintza. *Markel Gelazikin* honetan, Leire Bilbao gela garbitu behar duen mutiko baten istorioa kontatzen digu; narrazioa oso tarte laburrean gertaturikoa jasotzen du: amak garbitzeko esaten dion unetik Markelek gela jaso arte. Baina une labur horrek, espazioak –logelak– eta, batik bat, errealitateko fantasiara eta alderantzizko bidaia horrek Maurice Sendak ilustratzailearen *Piztiak bizi diren lekuan* gogorarazi digu. Baina, ziur gaude oroitzapen horrek gain idazleak –eta irakurleak ere bere aldetik testuarekin duen harreman dialektikoaren ondorioz– bestelako esperientzia batzuk ere izango dituela gogoan.

8+


Markelek amarekin duen elkarrizketa (edo errieta) dugu liburu hasieran; bat–batean irakurlea giro horretan sartu, eta, ondoren, Markelen ahotsa entzungo dugu, narrazioa zein den deskubritu: «Eta ohartu orduko amak erratza jarri dit eskuineko eskuan. Hori nahikoa ez balitz, trapu bat utzi dit gelan eta hautsak kentzeko beste tramankulu bat, lumaz betea. Eta hori egiteaz batera nire logelako atea itxi du». (6. or.). Narrazio bizia da, irakurketa arintzen duen narrazioa eta irakurlea protagonistarekin identifikatzera daramana. Orriak pasatu ahala Markelekin bat egiten dugu, baina, halako batean, narrazioaren ikuspuntua aldatu egiten da, hirugarren pertsona da amaren berri ematen eta Markelen eta gelan ageri den elefantearen arteko harremana kontatzen diguna, protagonistetatik urrunduz, distantzia jarriz: «Markelek ez daki, bere amak, korridorean aspiragailua pasatzen duen bitartean, ezkerreko belarria haren logelako atean jarri duela». (14. or.)

Azken ikuspegi horretan garrantzi handia du Eider Eibarren lanak. Ilustrazioak, errealistak eta pastel kolorez eginak, oso lortuak dira eta ederki laguntzen dute testuaren haria jarraitzen eta ulertzen, are gehiago irudimena eta errealitatea islatzen duen unean. Eibarrek, gainera, ohi duen bezala, hainbat perspektibetatik kontatzen digu istorioa, liburuaren irakurketak aberasteko.

Bilboak aurreko bi liburuetan markaturiko bidetik heltzen dio honi ere, hizkera zaindua eta narrazio poetikoa erabiliz istorio irudimentsuak kontatuz. Fantasia eta errealitatea ederki konbinatuz haurrentzat oso erakargarriak diren ipuinak sortu ditu idazle gazte honek; aspaldian euskal haur eta gazte literaturan behar den errelebo horren, belaunaldi berriaren ekarpen interesgarri bilakatuz.

Markel Gelazikin hau landutako sinpletasuna duen narrazioa dugu, gertakari baten inguruan eraikitako ipuina, eta lehen irakurleak erakartzeko elementu guztiak dituena. Bizia, argumentu irudimentsua, errealitatearen eta fantasiaren arteko konbinaketa... eta, ilustrazioen aldetik, ederki osatua den lana.

Xabier Etxaniz Erle



Pikolo

Patxi Zubizarreta

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

Alberdania, Irun, 2008

Arriskua hartuta

Patxi Zubizarreta eguneroko errealitatearen behatzaile kritikoa izan ohi da, eta ongi daki errealitate horri buruzko hausnarketa literarioak egiteko neurri askotako galbaheak erabil daitezkeela. Galbahearen ehundura oso fina ez baldin bada, errealitate puska handiak pasatzen dira literatur lanetara, eta orduan oso nabarmena izaten da puzzle oso pixelatu baten aurrean gaudela. Iragazkia oso fina denean, aldiz, definizio altuko literaturara heltzeko bidean jarri da idazlea.

Oraingoan, eufemismoz betetako herri honetan, «gatazka» izenez ezagutzen dugun afera hartu du hizpide Zubizarretak; eta, gatazka hori bizi eta beren bizitzetan integratu eta automatizatu duten herritar askoren kontzientzia inarrosle gisa, ikuspuntu dibergente bat aukeratu du, literaturan «arrotz bihurtzea» deritzana. Mundu jakin bat lehen aldiz ikusten duen norbaiten begiradak eragiten duen harridura: Carrollen ispluaren bestaldea, edo Swiften «Houyhnhnms» zaldi jakintsu haien herrialdea bezalakoak.

Caceresetik Euskal Herriko herri txiki bateko koartelera datorren guardia zibil baten zazpi urteko semea da mundu berri horren kontalari xaloea, eta orduan irakurlea ordena bitxi bat ikusten hasten da hain ezaguna zaion mundu arrotz horretan:

herriaren eta koartelaren artean muga egiten duen zubia; muga horren izaera azpimarratzeko, eskolara joateko zubia zeharkatu nahi duen bakoitzean umeak beste aldeko ume jazarleei ordaindu behar dien zerga; eskolako jolastokian aldi berean gertatzen diren bi partida erabat desberdinak. Guardia zibilarren seme Manuel ama gabe etorri da, eta herrian egin duen lagun bakar Eba aita gabe bizi da, legez kanpoko alderdi bateko zinegotzia izateagatik espetxeratu zutenaz geroztik.

Aukeraturako ikuspuntuari esker, irakurleak narratzaileak baino gehiago daki, eta amaierako zartatzea eta guardia baten heriotza espero ditu.

Baina idazlan honetan agertzen diren paralelismoak ez dira ekidistantzia. Horra, adibidez, maisuaren «gizatasun» keinua, edo «Zuk beti burua tente eraman, eta ez jaitsi sekula begirada» Manuelen aitaren errepikaren aurrean, Ebaren aitaren ahotan jarritako hitzak: «Eta esan zuen ez dituela poliziak maite, baina pertsonak errespetatu behar direla, eta polizien seme-alabak berdin» (69. or.).

Pikolo narrazioaren formari dagokionez, berriz, behin baino gehiagotan esandakoa errepikatuko dut: hirugarren pertsonako narrazio fokalizatua askoz sinesgarriagoa gertatuko zen Manuelen lehen pertsonako egunkaria baino (baina uste dut dagoeneko bakarrik geratu naizela uste horretan). Horren bidez, gainera, testuko arazo txiki bat saihestuko zen: «sinesgaitzasunaren etetea» deitzen dugun horren bitartez Manuelen euskarazko jarduna onartzera heldu baldin bagara, hautaturako ikuspuntuarekin zintzo izatera gaztelaniazko kantuak ere euskaraz eman behar zirelakoan nago.

Manuelen aitak arriskua hartu zuen diru gehiago irabazteko Euskal Herrira etortzea erabaki zuenean, Eba txikiak ere arriskua hartu zuen Manuel bezalako ume desberdin baten adiskide aukeraturat; Patxi Zubizarretak, finean, arriskua hartu du bonba batek birrindutako koartel baten irudiak begi-ninietan grabatuta utzitako ezinegona definizio altuko literatura bihurtzeko erabakia hartzean (nahiz eta horren areririk behinena gertutasuna den. Nago, denboran eta tokian, distantzia hartu beharra dagoela horrelako narrazioetan. Nola irakurriko da Pikolo hau beste hizkuntzetan? Amaiera irekita dago).

Manu Lopez Gaseni



Barraskiloarena, eta beste hamabost

Daniel Nesquens

Itzultzailea: PATXI EZKIAGA

Ilustratzailea: ELENA QUERALT
Ibaizabal, Bilbo, 2008

Zentzugabea haurrentzat

Daniel Nesquens idazle zaragozarrak toki duin bat irabazi du lehen mailako haur idazleen artean. Hamarkada honen hasieran argitaratu zuen bere lehen obra, eta urte gutxi hauetan hogeita hamar liburutik gora idatzi ditu (horietarik hiruzpalau euskaratuta daude, eta besteren bat euskaratzeko bidean), berezko duen estiloari eutsi dio eta emaitza gero eta lortuagoak plazaratzen ari da. Horien artean, *Hasta (casi) 100 bichos* izenekoa nabarmentzekoa da (White Ravens aipamena, 2002).

Nesquensen haur literaturak «nonsense» edo zentzugabetik edaten du, mozkortu arte edan ere batzuetan. Esaten da Carroll, Mihura, Tono eta *La Codorniz* aldizkariaren oinordekoa dela, eta gustuko ditu hitz jolasak, hitzen arteko harreman ezinezkoak, ustekabea, istorio xumeak, surrealismoa... Gure arteko idazleren batekin konparatzekotan, K. Linazasoro datorkit niri burura. Literatura erraza egiten duela ematen du, baina testu simple horien atzean hausnarketa eta begirada oso berezi eta landua dago.

Barraskiloarena, eta beste hamabost hau hamasei ipuin laburrez osaturako liburua da, ia gaztelaniazkoarekin batera argitaratuta (*Cuando el caracol y quince más*, nahiz eta euskal bertsiotan ez den jatorrizko izenburua jasotzen). Liburua «Europako txapeldunei» eskainita dago, gehiago zehaztu gabe; baina idazle-izena Nesquens hartu izanak futbolaz ari dela pentsarazten digu.

Aipaturako hamasei ipuin horietan zehar, askotariko gaiak eta teknikak baliatzen ditu. Batzuetan, Gianni Rodariren jarraitzaile dugu: «Mari Karmen» ipuinean, adibidez, «hildakoarena egin» lokuzioa hitzez hitz hartzearen ondorioa da. Beste batzuetan, irakurlearen espektatibekin egiten du jolas, hala nola, «Katu hegalaria» izenekoan. Pertsonaia ezagunen rola desmitifikatzen ditu zein hitz baten oihartzunaren atzetik beste batera iritsita ipuin bat osatzen du. Ipuinetako protagonista berdin izan daiteke letra-zopan ipuin bat irakurtzeko gai den pertsonaia bat zein hanburgesak gustuko zituen sagu bat.

Ipuin-bilduma gehienetan gertatzen den legez, gorabehera nabarmenak daude ipuin batetik bestera, baina maila onari eustea lortzen du, oro har. Niri gehien gustatu zaidana «Barraskiloarena» izan da, denbora neurtzeko hainbat irizpide buruzko gogoeta fina. «Sukar-hamarren batzuk» delakoa ere biribila da, eta Kafka dakar gogora.

Elena Queralt marrazkigilearen lana ere goraiatu nahi nuke; izan ere, trazo lodian eta kolorearen erabilerak, zenbaitetan, Kveta Pacovska txekiarrak ilustratzaile mitikoaren lana gogorarazten du.

Itzulpenari dagokionez, esan behar da Nesquensek orainaldian idazteko joera duela, eta horrek zenbait buruhauste ekarri ohi dizkio itzultzaileari. Ez dago gaztelaniaren orainaldi puntukaria euskaratzeko formula bakar magikorik, eta bide bat baino gehiago entsea daitezke, baldin eta emaitzak funtzionatzea lortzen bada. Eta, nire belarrirako, oraingoan testuak ez du alde horretatik behar bezala korritzen.

M. I. G.



Usoa, hegan etorritako neskatoa
Patxi Zubizarreta
Ilustratzailea: ASUN BALZOLA
Erein, Donostia, 2008

Literatura hutsa

Duela bederatzi urte argitaratu zen aurreneko ipuin hau euskaraz, Usoa neskatoari buruzko kontakizun labur honek bidea eman zion, ondoren, sail bati eta beste lau lan plazaratu ziren ondorengo urteetan. Orain, ordea, ipuina berriro argitaratu da bilduma berri batean (inondik ez da ageri lehen argitalpen haren aipamenik) eta aitzakia horri helduta ekingo diogu gure artean hain oihartzun txikia izan den libururen komentarioari.

Usoa, hegan etorritako neskatoa liburua zenbait ezaugarri berezi ditu: alde batetik testuaren banaketa dugu, zenbait orritan esaldi bakar edo paragrafo bakarra dugu ideia bati lotuta; bestetik, genero nahasketa—postmodernitatearen ezaugarri gisa—narrazioa eta genero epistolarra erabiliz; hirugarrenez irakurle implizituari, protagonistari, zuzentzea narratzailea; kontakizun guztia, gainera, konparaketa batean oinarritzen da; eta, azkenik, ilustrazioen pisua eta garrantzia testua osatuz. Hau guzti hau oso liburu laburrean aurkitzen dugularik, gainera.

«Aurten ere, kukuia etorri da udaberriarekin batera. Ku-ku!» (5. or.) esaldiak betetzen du kontakizunaren lehen orria. Udaberrian gaude, eta kukuaz ari da; eta ideia horretatik abiatuta narratzaile orojakileak (ala Usoaren aurrean dagoen

8+

narratzaile hutsa baino ez da?) andereñoak kukuaz dioena aipatzen digu, eta kukuia bihurria dela: «Kukuia bihurria da, alproja eta aprobetxategia. Bere umeak zaindu eta maitatu beharrean, bere arrautzak beste txori txikien habietan ipintzen ditu» (10. or.). Eta ideia horretatik tira eginez irakurleak deskubrituko du Usoaren egoera; neskato txikia, kuku-kumeak bezala, abandonatua izan baitzen. Usoaren amaren eta kukuaren arteko paralelismoa dugu, Usoa amak abandonatu behar izan baitzuen, hegazkin batean sartu eta gerrarik eta goserik ez dagoen lurralde batera bidali.

Dramatismoa dago testuan, nabarmena gainera, baina ez da era bortxatuen ageri. Narratzailea Usoari zuzentzen zaio batzuetan—irakurlearen eta protagonistaren arteko identifikazioa lortuz— eta neskatoaren gogoetak kontatzen dizkigu. Narratzailearen hirugarren hanka Usoak duen eskutitza daukagu; «gutun hori zen zure ekipaje guztia, zure ekipaje bakarra. Eta gutuna irakurtzea, zerura begiratzea bezain atsegini duzu» (20. or.); abandonatu baino lehen amak eman zion eskutitza hori beste ezer baino gehiago maitasun eskutitza bat da, alaba hiltzen ikusi baino lehen herrialde aberats eta baketsu batera bidaltzen duen amarena, bere begi-niniak baino gehiago maite duena abandonatzen duen amarena.

Amaiera itxi gabe duen istorio honek ipuinetik baino egoera baten deskribapenetik du gehiago. Usoa neskatoaren egoera azaltzen digu, nola dagoen (integratuta) herrian, etxean, eskolan... eta Usoari andereñoaren komentarioek sortarazi dioten kezka, «nork ote daki kuku amak zergatik egiten duen egiten duena? Beharbada bere arrazoiak izango ditu» (28. or.), eta nola lasaituko den.

Asun Balzolare irudiek, sinpleak eta oso landuak era berean, indar handiagoga ematen diote narratzaileari, nahiz eta testuari aurreratu informazioa—protagonistari buruzko informazioa—ematerakoan.

Gutxitan ikusi izan dugu hain testu laburrean horrelako indarra duen narrazioa, horrenbeste hunkitzen eta gozarazten digun kontakizuna, eta alde horretatik guztiz bat gatzokatalanez argitaratu zenean hango kritikok ezagun batek zioenarekin, liburu hau «literatura hutsa da».

Xabier Etxaniz Erle



Zopa-ontzia eta burruntzalia
Michael Ende
Ilustratzailea: PABLO ECHEVARRÍA
Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI
Ikasmina, Bilbo, 2008

Maitagarriaren haserrea

Michael Endek fantasia errebindikatu zuen Europako erdialde eta iparraldetik errealismoa indartzen ari zen garaian, nobela gordinak, egunerokotasunean oinarrituriko istorio latzak edo umoretsuak baina kritikoak indarra hartzen ari zirenean. Horren ondorioz ditugu, bestek beste, *Momo* eta *Istoria amaigabea* bere nobela ezagunak.

Zopa-ontzia eta burruntzalia ipuin honek, alabaina, fantasiaren iturri horretatik baino gehiago ipuin herrikoietatik du. Elkarren ondoan, ia mundu paraleloak—eta era berean berdina—osatzen dituzten bi herrialderen istorioa dugu hau. Ondoan egonik elkarren berri ez zuten bi herrialderena: «Oso zaila zen bi erresumak banatzen zituen mendi handia eskalatzea; horregatik, inor ez zen halakorik egiten saiatu. Hori zela eta, elkarren berri ez zuten» (8. or.). Izaeraz, baina baita irakurle berehala ohartuko den bezala izenez ere oso antzekoak diren herrialde bi horietan printze bat eta printzesa bat jaio ziren eta gertakari hori ospatzeko inguruetakoa eta urruneko ezagunak gonbidatu zituzten, guztiak ondoko herrialdekoak

eta erresuma bieie ahaztu zitzaizen maitagarri gaiztoa izan ezik.

Egileak abisatu egiten digu: «beste ipuin askotan gertatutakoa gertatu zen: ezkerreko errege-etxeari zein eskuinekoari ahaztu egin zitzaizela hamaikagarren mailako umore txarreko heren-lehengusina bat gonbidatzea, bi familieliekin ahaidetuta zegoena» (12. or.); eta Endek abisatu bezala, Perraulten *Basoko loegile ederra* ipuinean jazo bezala, honetan ere gonbidatu ez zuten maitagarriak malefizioa bota zien: «gaurko egunarekin gogoan izan nazazuen, opari bat ekarri dizuet» (16. or.). Transtestualitate ariketa bitxia eskaintzen digu Michael Endek, izan ere, guztiok ezagutzen dugu Perraulten istorioa; oraingoan, aldez, bi familia, elkarren berri ez duten bi familia, dira maitagarriaren haserrea jaso dutenak. Eta inkomunikazio horretaz aprobetxatzen da egilea, barka maitagarria, malefizioa martxan jartzeko.

Zopa-ontzi bat eta burruntzali bat oparitzen die maitagarriak printzeari eta printzesari, bakoitzari bat eta familia bieie esaten die zopa-ontzian burruntzalia sartzean zopa goxo eta amaigabea izango dutela. Horretarako, baina, bakoitzak falta zaion zatia eskuratu behar du.

Ipuin herrikoien egitura dugu ondoren, erresumetako agintariak falta zitzaizen tresna eskuratzeko bidean. Baina agintariak boterea, indarra, lapurreta... erabiltzen duten bitartean Praline printzesak eta Larrufin printzeak erresumen arteko mendian bat egin eta elkarlanean eta maitasunean oinarritutako bideari ekiten diote.

Enderen ipuin hau berehala irakurtzen den istorioa da, narrazio bizia, arina, entretenigarria duen istorio zahar-berria, hipotestua (Basoko loegile ederra) kontuan izanik irakurlea berehala ohartuko da oraingoan aldaera batzuk daudela; ipuin tradizionalen hirukotasunaren aurrean Pralineren eta Larrufinen jokabidea dugu, eta behin eta berriro errepikatzen diren istorio, jarrera, jokabide, ekintza, ... paraleloen aurrean hirugarren ikuspegi berria, gazteek ezarria, ageri da nagusi.

Manu Lópezek eginiko itzulpenak ederki korritzen du, istorioaren erritmo bizia eta errepikatua arinduz, erraztuz. Eta beste hainbeste esan daiteke Pablo Echevariaren irudiei buruz, ukitu fantastikoa izanik ere umorea eta bizitasuna ematen diotenak narrazio entretenigarri eta eder honi.

Xabier Etxaniz Erle

Nola zeharkatu errepidea pizza bihurtu gabe.

Anne Fine

Ilustratzailea: TONY ROSS

Itzultzaileak: PATXI EZKIAGA/EUNATE SARASOLA
Ibaizabal, Bilbo, 2007

Anne Fineren trikuarena

Idazle askori gertatu bezala, Anne Finek film bati zor dio bere ospea neurri handi batean. *Madame Doubtfire* (1987) nobelan oinarriturik izen bereko filmari esker egin zen ezaguna haur eta helduentzat hirurogei bat lan argitaraturik dituen idazle hau. Eta hain zuen ospe horri zor zaio, nire ustez, idazle horren lan batzuk, *Nola zeharkatu errepidea pizza bihurtu gabe* (Ibaizabal, 2007) hau barne, euskaraz argitaraturik ikustea.

Bost kapitulu laburretan egituratuta dagoen ipuin honetan elkarrizketa da elementu nagusia. Ia ez dago deskribapenik eta gogoetak ere alde batera uzten dira. Liburuaren hasiera, horren adibide argia dugu: «Astelehenean Miss Talentino klasera sartzean, denak hitz eta pitz ari zirela oharu zen/—Tomen anaiarena entzun al duzue?/—Ez, ez da bere anaia izan. Bere lehengusua izan da./—Harry?/—Ezetz ba, «Larry»./—Handien eskolara doana./—Ez, ertainera». (7. or.)

Elkarrizketek ematen dioten bizitasun hori liburuko orri guztietan zehar nabaritzen da, eta alde horretatik di—da batean irakurtzen den istorioa dugu Anne Fineren hau.

Errepidea zeharkatzen jazotako istripu batetik abiatuta Talentino andereñoak errepidea zeharkatzen irakatsi nahi die bere ikasleei. Beldurrak, lotsak eta aurreiritziak ikusi ahal izango ditugu, baina andereñoak, arriskurik gabe, irakatsiko die pizza ez bihurtzen kirikinoak bezala. Bai, eskola aurreko errepidean kirikinoak baitugu hilik; Atxagak «Trikuarena» poema ederrean kontaturikoaren antzera: «nola bere hiztegi unibertsala ez den / azkeneko zazpi mila uneotan berritu, / ez ditu ezagutzen gure automobilaren argiak, / ez da ohartzen bere heriotzaren hurbiltasunaz ere».

Heriotzaren presentzia horrek errealitatearen gordintasuna areagotzen du berez oso errealista den kontakizun honetan. Errealitate horrek kontakizunaren hasierako Larry eta kirikinoak lotzen ditu, ipuinaren fantasiatik eguneroko errealitateara hurbildu.


Liburuak, baina, errepidea nola zeharkatu erakusteaz gain, beste kontu askotara hurbiltzen gaitu, haur eta gurasoen arteko harremanetara edo matematikak gure bizitzan duen garrantzira, bi adibide nahiko ezberdin aipatzearren; eta istorioan baldin bada protagonista nabarmena Simon dugu. Matematiketan oso ona baina bestelakoetan txarra dela uste duen mutikoa. Oso bitxia da andereñoak, eta idazleak, nola lotzen dituzten pertsonen balioak beste-lako gauzak egiteko trebeziarekin, nola irakasten dieten ikasleei—eta guri— bizitzan jokatzeko.

Tony Rossen irudi errealistak, gure Mikel Valverderenak gogorarazten dizkigutenak, guztiz aproposak eta egokiak dira testua ulertzeko eta gozatzen laguntzeko. Tamalez, paratestuek, azalaren diseinuak kasu honetan, eragotzi digute, jatorrizko bertsioan ageri den bezala, izenburua bi neska-mutilen ahotik irteten diren globoetan ikustea. Neskak «Nola zeharkatu errepidea» dioen bitartean, ondorengo mutilak lurrean hilik dagoen pizza arantzadunari begira «pizza bihurtu gabe» gehitzen diola.

Fineren istorio hau testu arina eta irakurteraza da, entretenigarria eta didaktiko samarra, baina ez aparteko lana, gertakari baten kontaketa mugatzen baita. Arestian esandakoa gutxitu gabe, irakurlea asetu gabe geratzen da amaierara iristean, eta ez da gertakariaren narrazioa hankamotz geratu delako, istorioak, giroak, pertsonaiek... kontu gehiagorako ematen dutelako baizik. Baina ez dakit hori ez ote den norberaren espektatiben kontua (harrera estetika kontzeptua erabiliz) eta ez idazlearen asmoarena. Liburu entretenigarria, bizia eta ederki ilustratu eta itzulia baita *Nola zeharkatu errepidea pizza bihurtu gabe* edo, «Trikuarena» kontuan izanik, gure denboran sartzeko metodoa.

Xabier Etxaniz Erle





Amilami. Laminen istorioak
Juan Kruz Igerabide
Ilustratzailea: ELENA ODRIOZOLA
Elkar, Donostia, 2008

Antzinako istorio modernoak

Laminen istorioak direla dio liburu honen izenburuak. Lamina baten istoriotik abiatuta laminen inguruko istorioak, hain zuzen. Eta helburu horri erantzunez eskaini digu Igerabidek Amilami protagonista nagusia duen nobela hau.

Dimatik ihesi, Sugoiz zitalaren agindupetik ihesi, Gasteiza iritsiko da Amilami, bertan ospitalean lan egin eta, handik ere ihesi, etxe batean inude amaituko du ibilaldia lamia ederrak. Horrela laburbildu liteke nobelaren nondik norakoa, abenturazko nobelatza har daitekeen obra; izan ere Sugoik lamiak bidaliko ditu Amilamiren kontra, aurkitu eta ekar diezaioten; eta lamia onak, berriz, etsai horien kontra bere magia guztia erabili beharko du.

Abenturazko argumentu hori, baina, Igerabidek erabili duen egitura baino ez da. Benetan kontatu eta azaldu nahi diguna gozatuz jarrai dezagun. Misterioa, intriga, jakin-mina laminen inguruko informazioa azaltzeko erabili dituen tresnak izan dira nobela honetan. Horrela, hasiera-hasieratik aurkeztuko zaigu narrazioko protagonista nagusia, lamia gazte bat, Amilami, eta ondoren laminen ezaugarriak, trebeziak, ohiturak, jokabidea... eta beste mila kontu gehiago ezagutzeko parada izango dugu Amilamiren abenturetan zehar.

10 +


Baina, ez horiek bakarrik, kontu horiekin batera lo-kantak, esaerak eta tradizioetik harturiko hainbat eta hainbat elementu ere aurkezten baitizkigu Igerabidek.

Argi dago liburu honen bidez hori guztia egiteko asmo garbia izan dela. *Dona-dona* saila irakasle, guraso edo bibliotekariarentzat, bitartekariarentzat alegia, pentsatua izan da; batik bat euskal tradizioetik jasotako elementuen transmisio moderno eta berri baten bila. Eta hain zuzen transmisio moderno eta berri hori lortzeko, edo beste modu batean esanda laminen kontuak oraingo haurrei kontatzeko, idazlearen trebezia behar da. Aurreko batean Patxi Zubizarretak sorginekin egin zuena (*Atxiki sekretua* liburu zoragarrian) oraingo honetan Igerabidek egin du: kontakizun erakargarri, entretenitu eta ederki egituratu baten bidez tradizioa eta modernitatea lotzea, irakurlea harrapatzea hasierako orrialdetik amaierara arte irakurtzen jarrai dezan.

Elena Odrizolaren irudiek asko laguntzen dute liburuaren tonuan eta edertasunean; laminen ondoan ageri diren ume bien karakterizazioa eta, amaiera aldean, indarra oso lortuak dira; eta, ohi bezala, ilustratzaile donostiarrak are ederrago bilakatzen ditu liburuako kontakizunak.

Amilami tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen abenturazko nobela entretenigarria dugu, antzinako kontuak gaur egungo haurrei era guztiz erakargarrian eskaintzen duen liburu paregabea.

Xabier Etxaniz Erle



Hizkuntza sekretuak
Arrate Egaña
Ilustratzailea: MARIMAR AGIRRE
Elkar, Donostia, 2008

Entomologia-zaletasuna babes

Arrate Egañak duela hamar bat urte eman zuen bere burua ezagutzera haur literaturaren arloan «Printza puzkertia» (SM, Bapora saria 1998) obraren bitartez. Geroztik, beste hainbat idazlan eman ditu argitara haur eta gaztetxoentzat, gizarte-kezka batzuk hizpide hartuta. Horixe egin du oraingo honetan ere, gaurkoan komentagai hartu dudana *Hizkuntza sekretuak* liburuan.

Herrikka bateko eskolan ume bereziekin lan egiteko bide ezin bitxiagoa asmatu du zuzendariak: «Porrot Taldearen Sistema». Talde horretan biltzen ditu egoki-aurrera-egiten-ez-duten haurrak, munduko bazter guztietatik lan bila etorritako familietakoak (Ekuadorreko bat, txinatar bat, ijito bat, arabiar bat, errumaniar bat, iparraldeko bat...) eta herriko seme-alaba batzuk ere. Denak bizitzaren zauriek markatuak: «Aizu! Hain gaiztoak ere ez dira: kontuan hartu behar duzu denek izan dutela oso bizitza gogorra, zuk eta nik bezala» (116-117. or.). Ume horiek, «bereziak» izateaz gain, bereziak izan dira eskolan ere, talde berezi batean ez ezik, toki fisiko berezi ere batean kokatu baitituzte: eraikin nagusitik aparte dagoen barrakoian.

Haien arteko harreman gorabeheratsuen gainetik, Felipe irakasleak lortu du elkarrengandik bereizten dituen elementu bat azkenean guztien bateragarri izatea: hizkuntza. Bakoitzaren hizkuntza oinarri hartuta, hiztegi sekretu bitxi bat eratu dute, beren artean komunikatzeko, eta zuzendari maltzurarengandik babesteko.

Ikasturtearen hasieran neska berri misteriotsu bat etorri da eskolara, Mei, etsaitzat sumatzen dituenak kontrolpean izateko metodo are bitxiagoa ekarriz: zerbaitek haserrarazten duenean, edozein intsektu eta zomorro motari deitzeko eta bere nahierara erabiltzeko gaitasuna du. Eta, hala, liburuia izurritze beteko da: kakalardoak, liztorrak, inurriak, euliak, armiarmak, ipurtargiak, matxinsaltoak eta bururatu daitezkeen beste zomorro ugariz.


Narratzailea gela berezi horretako ikasle bat da, Lukas, herriko familia ugari baten seme bat. Hasieratik bertatik aitortzen duenez, mutil arrunta da, baina Mei etorri berriarekin maitemindu da, eta horrek bultzatu du, nonbait, istorioari ahotsa jartzera.

Arruntak direla jakinda ere, ikasle berezi horien helbururik behinena «normalak» izatea da: «Eta jakina, normala zara, ez kezkatu. Hemen, Barra-koian, denok gara normalak. —Olduan, zelgatik gaude gela *nolmaletatik apalte?* —galdetu zuen Jone Lik. —Porrot Taldearen Sistemaren errua da!— aldarrikatu zuen Petruskek haserre» (149. or.).

Istoria, bistan denez, errealismo magikoaren ukitua izan arren, hiperbolikoa da ezer baino gehiago. Egoerak eta pertsonaien jarrerak murrerara eramaten dira gizarte-salaketa azpimarratzeko, eta eskola-sistemari buruzko gogoeta eragiteko.

Kontakizunean hainbeste pertsonaia egoteak eta bakoitzak bere ekarpena egin nahi izateak eritimoa moteltzen du zenbaitetan. Guztiarekin ere, jakin-minak liburuaren amaieraraino eramango du irakurlea, eta, han, helduek txalotu eta umeak kezkatuko dituen amaiera ireki ezohikoarekin egingo du topo.

Manu Lopez Gaseni



Barro de Medellín
Alfredo Gómez Cerdá
Edelvives, Madril, 2008

Bidaia errealista bat

Banuen Alfredo Gómez Cerdáren entzutea, baina orain arte ez nion ezer irakurria eta Haur Literaturako Ala Delta saria irabazi izanak eskaini dit aukera egilea ezagutzeko eta Medellineraino bidaiatzeko.

Bi mutikoren adiskidetasuna, auzune lokaztuak, familia giro petralak, alkohola, lapurretak . . . Batez ere giro hori ez da sarriegi ageri haur literaturan, eta horrek egiten du erakargarri liburuia. Eta hain zuzen ere liburu baten lapurreta bihurtuko da istorioaren ardatz, baina oso modu egokian, izan ere liburuia ez da askabide idiliko baten modura agertzen. Zentzu horretan, Xan López Dominguez-en ilustrazio zuri-beltzek ez dute nabarmentzen espazioaren gordina, pertsonaiaik eta haien giroa baino.

Amaitu aurretik, esan beharra dago gutxitan agertzen direla haur liburuetan «*Hijueputa*» bezalako hitzak, eta ondo dagoela muga horiek gainditzea. Hala ere, «ausardia» hori gero estilo akaso «zainduegi» batean txertatuta dago eta hain zuzen ere estiloaren eta irakurleen arteko orekak piztu dit zalantza. Ea hamar urtetik aurreragoko irakurleek zer dioten (horren arabera ikusi beharko litzateke ipuina euskaratu ala ez?).

Laura Sagastume

Nur eta iralandar gnomoa

Toti Martínez de Lezea
Ilustratzailea: JUAN LUIS LANDA
Itzulpena: ROSETTA testu zerbitzuak
Erein, Donostia, 2008

Nurren lehen istorioa

Hau da, oker ez bagaude, Toti Martínez de Lezeak nobela historikotik at idatzitako lehen haur liburuia. Gazteentzat eginiko zenbait lan historikoren ondoren Nur neskatoren istorio hau aurkezten digu idazle gasteiztarrek.

Hasiera-hasieratik badira liburu honen nondik norakoa ezagutzeko baliagarriak zaizkigun kontu batzuk, lehen esaldietan ikus daitekeen bezala:

«Nur dut izena. Ez Noor, ezta Nour ere. Nur, soil-soilik.


Nire herriaren izena zail samarra da esaten. Larrabetzu.

Amarekin eta *Babarekin* bizi naiz; aita esan nahi du arabieraz.

Hirurok bakarrik».

Hots, lehen pertsonan narraturik dagoen istorioa dugu, aita arabiarra eta ama euskalduna dituen neskato batek kontatua . . . baina, era berean, oso bitxia gertatzen zait euskal irakurle bati Larrabetzu izena zaila egiten zaiola pentsatzea (ala erdal irakurleak daude idazlearen buruan?), eta letra etzanetan liburuan —euskarazko bertsioan— ageri diren akats ugarietako lehena aurki dezakegu.

Nur eta irlandar gnomoa oso istorio sinplea da, erraz irakurtzen dena, Nur neskatoak aitona




-amonen etxean aurkitzen den gnomo batekin duen harremanari buruzko istorioa. Irakurlea Nurrekin identifikatu eta poliki-poliki Finn gnomoaren egoeraz eta geroaz kezkatuko da, bai eta neskaren ateraldi eta burutapenekin gozatu ere. Alde horretatik liburuak badu intriga edo tentsio puntu txiki bat. Zer gertatuko zaio Finni? Itzuli ahal izango da bere herrira? Aurkituko ote du helduren batek?

Toti Martínez de Lezeak aspaldi erakutsi zigan istorioak kontatzeko duen abilezia. Liburu honetan trebetasun hori haur literaturan erabiltzen du, eta badu *Bostak* edo lagun taldea protagonista duten sail horien antza; izan ere, Nur hiruki batzuekin (Noelia, Ainara eta Unai) eta Kuka zakurrearekin ibiltzen baita jolasean. Denen artean bilatuko diote irtenbide zoriotsua aitona eta amonaren etxeko zaborretan dagoen gnomo irlandarrari.

Erraz eta arin irakurtzen den istorioa dugu liburu honetakoa; ederki eginak diren koloretako irudi ugariz lagundurik eta formatu nahiko zainduan (nabarmena da argialetxearen apustua alde horretatik). Hala ere, nire ustez, argumentu oso laua eta edizioa —itzulpena ez oso zaindua, testuan ageri diren akatsak, aurkibide eza...— hobetu beharko lireratek hurrengoetarako, ziur baikaude irlandar gnomo honen istorioaren ostean Nurrek beste batzuk biziko dituela, eta guk ere bai.

Xabier Etxaniz Erle



Maitez eta minez
Antton Kazabon
Ibaizabal, Bilbo, 2008

Aitonaren maite mina

Behin baino gehiago aipatu izan dugu Antton Kazabonek esperimentaliziorako duen joera. Tematika aldetik gai eta ikuspegi berritzaileak erabiltzen baditu ere, hori baino interesgarriagoak dira Kazabonek egitura aldetik egiten dituen ekarpenak, gaur egun gure letretan horretan ari den idazle bakarrenetarikoa baita.

Maite eta minez nobela hau horren azken adibidea dugu. Idazlea, hitzekin jolasteko eta bigarren eta hirugarren zentzu bat bilatzeko orduan duen abildadeaz, maitasunaz, maitemintzeaz eta horrek sortaraz ditzakeen poz eta saminez ari zaigu. Egitura epistolarra darabil horretarako, iloba batek, Aloñak, aitonaarekin duen eskutitz trukaketa bat dugu nobelaren egituraren oinarria. Aloña, deskribapen batzuk lantzeko aitzakiarekin (eskolan egin beharreko lan hori aitzakia baino ez baita nobela), aitonaaren gaztaroan murgilduko da, eta irakurleak aurkitzen duen aurreneko kontua lehena eta orainaren arteko ezberdintasuna dugu. Aitonak hasieratik erakusten du hizkera bizi eta aberatsa «hantxe jan eta edan genuen etorkizunean behar genuen koipea eta haizea» (7. or.), eta kanpoko

erreferentzien aipamenak: «Ni ere, horregatik, beharbada, ez nau izutzen negu hurbilak uda beteko beroan, dakidalako irauten duela orainak ere geroan» (7. or.) (etzana egilearena da) Mikel Laboaren kantuko letra, esaterako.

Aitonak errekan bainatzen ziren garaira eramaten gaitu: «ezkailuekin bizitzen eta haiek ulertzen ikasi genuen» (8. or.), baina deskribapen fisiko horren ondotik, apur-apurka, sentimentalak gero eta leku handiago hartzen du narrazioan: «Arreba zaharrenak uda pasatzera etxera ekarri zuen Maria Jesus ikaskidea lehen aldiz gure presara jaitsi zenean, eta bainujantziarekin uretan sartu, uste nuen munduan ikusi behar nuen guztia ikusi nuela. Gauean ohatzera joandakoan ere, ez zuten etenik nire gorputz osoko kilima gozoe» (9. or.).

Aipu horrek, ordea, Maria Jesusen aipuak, uste baino ibilbide luzeagoa du nobelan. Aloñaren jakin-mina piztu («A, aizu, eta zer arraio da Maria Jesus delako horren kontu hori? Gure familian ez dut inor ezagutzen izen horrekin. Esplikatu beharko didazu zure hurrengo deskribapenean») eta antzinako maitasun historia batera eramango gaitu.

Hogeita lau kapitulutan, gutunetan, banaturiko nobelak garai eta istorio ezberdinen arteko oreka bilatzen du. Aitonaren deskribapen fisiko, nahiko poetikoetatik, abiatuta antzinako gertakarien deskribapenera eta ilobaren interpretaziora iristen gara. Eta hain zuen, hauxe da liburuiko kontu bitxienetarikoa bat Aloñaren ikuspegi itxia aitonaaren maitasun historiaren aurrean; berak, Pauloz maiteminduta, gauza bera egiteko asmoa duen bitartean. Xabier P. Docampo idazle eta kritikiko galiziarrek honako hau zioen: «Haur eta gazte literaturak, benetan haren etorkizunean sinesten badugu, aurrera egin beharko du irakurlearekin dialektika bat onartu eta erantzun nahiz jokabideei proposamen zehatzik ematen ez dieten liburuen bidez. Gogoeta, kritika eta irakurketa kritikoa egitera bultzatzen gaituzten ereduak behar ditugu»; ideia horren ildotik Antton Kazabonek egiten duen proposamen honek maitasunaz, belaunaldi ezberdinen arteko hausturaz edo harremanaz gogoeta egitera eramaten gaitu aitonaaren eta Aloñaren arteko eskutitzen trukaketa dela eta, istorioaren tentsioa *in crescendo* doan liburu interesgarri honetan.

Xabier Etxaniz Erle



Astoa: historiako astorik ospetsuenak
 Juan Manuel Etxebarria Ayesta
 Ilustratzaileak: AITZIBER IBAIBARRIAGA, Jose
 IGNACIO JAIO, NEREA URIBE.
 Ibaizabal, Bilbo, 2004

Aspalditxoan irakurritako liburu bat berreskuratu nuen lehengo batean nire liburu-sailetik, duela urtetxo batzuk Ibaizabal argitaletxearen eskutik plazara emandako liburu bitxia eta entretenigarria: *Astoa (Historiako astorik ospetsuenak)*. Izenburuak artez eta argi adierazten duenez, Juan Mari Etxebarria Ayesta ikertzaile eta idazleak astoa hartu du aztergai bere liburuaren ontzeko garaian. Ezaguna da, astoa —galtzearen dagoen animalia apal eta esaneko hori—, hainbatetan izan dela literaturan ez ezik bestelako esparruetan ere protagonista eta hizpide. Nork ez du ezagutzen, esaterako, Juan Ramon Jimenez poetak prosa poetikoan idatzitako *Platero y yo* lan bikainean azaltzen den asto gogoangarria? Nork ez du irudikatzen Cervantesen *El Quijote* eleberri handian Sancho Panza bera bezain ospetsua den haren asto nabarra? Baietz kantatu inoiz edo behin «Arre, arre mandako» kanta herrikoia? Etxebarriaren liburu honek, bada, horiek eta beste hartu ditu aintzat.


Liburuaren hastapenean, gaitzat hartu duen animalia inguruko lehenengo oinarriak finkatze aldera—edo, astoaren arrasto bila jardun du egileak eta, horretara, haren jatorriaz idatzi du lehenengo, eta asto izenaren etimologiaz hurrengo. Hortik aurrera astoak hainbat arlotan izan duen presentzia

12 +

dira aipagai eta hainbat sailetan daude eraturtu liburuaren luze-zabalean ageri diren informazioak eta testigantzak. Egun, arte literatura idatziaren zein ahozkoaren bidez heldu zaizkigun pasarte esanguratsuenak dira horren lekuko: biblia, abestietan, mitoetan, fabuletan eta literaturan. Gure inguruko istorioez gain, kanpoko beste herrialde batzuetan astoaren inguruan jazoriko istorioak eta esaundak ere badira tarteko, Grezia, India eta La Habanako ipar-mendebaldean dagoen Baintoa herrixkako kontu zaharrak kasu, gurean ez ezik leku guztietan ere ondotox ezagutzen baitute animalia hau. Ezagun denez —batzuetan, hala aipagai baitira orrialde akabuko iruzkinetan—, askotariko iturriak erabili ditu Etxebarriak bere bildumatxo osatzeko tenorean, besteak beste, *Biblia* bera edota Azkueren *Cancionero Popular Vasco* delakoa. Liburuaren hondarretan, orrietako kolore bereizgarri emanda, irakurleari testuok irakurtzean arrotzak gerta dakizkioken berbak batzen dituen hiztegia ageri da, eta, orobat, joskeran eta aditzetan ez ohikoak diren formen bilduma argitzeko aukera, «Egitura bereziak» izenburupeko gehigarrian. Tarteka-tarteka, astoak agertzen direneko argazki zuri-beltzak azaltzen dira testuen osagarri.

Muinean, honetan da, bada, Etxebarria Ayestaren liburu. Zinez aukera ona aspaldiko garaietan ez baina gaurko mundu modernoan hain urria eta ahantzia den astoaz hainbat gauza ikasi eta ezagutzeko.

Xabier Olaso



Ez gara elkarrekin zahartuko
 Arnaud Cathrine
 Itzultzailea: AIORA JAKA
 Elkar, Donostia, 2008

Aldi baterako eromena

Arnaud Cathrine (1973) idazle frantziarrak dozena bat liburu argitaratzeaz gain, abestietarako hitzak idatzi eta zinemarako lan batzuk egin ditu, Google-k dioenez (bestela, guztiz ezezaguna zitzaidan: Frantziatik oso tantaka etorri ohi zaigu gazte literatura, ezin asmatuzko bideetatik).

Liburuaren laburra da, eta eskutitz orobat laburrez osatua dago nagusiki: Sylvain protagonistak hainbat pertsonari idatzitakoak, hain zuzen. Bigarren gutuna da luzeena, zer gertatzen ari den azaltzen diguna, eta istorioa ulertzeko koordinadak eskaintzen dituena. Sylvain gazteak gurasoei idatzitako gutuna da: hamabi urte beteta, etxetik alde egiteko ordua dela uste du; beragatik egindako guztia eskertzen die eta, jarraian, alde egitearen arrazoi nagusia azaltzen: Mahalia izeneko neska bat maite du, eta haren etxera bizitzera joatea erabaki du, haren guraso eta amonarekin batera. Sylvainen etxeko gertakizun batek, ordea, planak aldarazten dizkio. Uda etorri da gero, eta horrekin batera maitemintze berriak eta beste ziklo baten hasiera.

Sylvainen ikuspuntuak gidatzen du narrazioa epistolarra eta, beraz, ez dugu besteen iritzia edo

jarrera jakiterik. Gutunek, hasiera batean, harritu egiten dute irakurlea, baina laster ohartzen da umorez zipiritzindutako hiperbole handi baten aurrean dagoela.

Baina egileak baliabide hori erabiltzea ez da kapritxo hutsa, liburuiko hiperbolea bat datorrelako Sylvain nerabearen eta munduko nerabe guztien jarrera hiperbolikoarekin. Horixe baita, azken batean, liburuaren gaia: nerabezaroaren «gaitza». Gaiaren sakona irakurle arretagabeari aditzera emateko erabili den baliabidea webgune pare bateko emaitzak tartekatzea izan da, oraingoan tonu parodikoa baliatuz (bigarrena da liburuan benetako funtzionalitatea duena, eta nago bat-bateko agerpen hori orekatzeko jarri zela lehena): «Kasuen %23,54tan, nerabea espiral galgarri batean erortzen da, eta horrelakoetan honako hauek izan daitezke ondorioak: ihesaldia (gurasoen begiradapetik aldentzeko desioa) edo buru-nahasamendu handia (maitemin-eroaldia, esaterako)» (57. or.).


Horretantxe biltzen da liburuaren nondik norakoa: nerabearen neurritz kanpoko maitemina eta ihesaldia. Testuak irribarra marrazten dio irakurle helduari, eta litekeena da irakurle nerabeari ere, Werther gaztearen penen berri txikiarik ez baitu, barre-algara ateratzea, bere burua halako ispilu handigarri baten aurrean ikusirik.

Azkenik, egilearen bi parte-hartze paratestual aipatu nahi nituzke. Alde batetik, «Editorearen oharra» izenekoa, liburuaren hasieran paratua, irakurlea prestatzeko tonua markatzeko, besteak beste hauxe dioena: «[editoreak] irakurleei ohartarazi nahi die moralki zalantzarriak diren hainbat eszena ager litezkeela». Bestetik, aukeratutako titulua, Sylvainek bere maiteei idatzitako gutunen amaierako esaldia «elkarrekin zahartuko gara» ukatzera datorrena.

Liburu interesgarria ofizio onez euskaratua, egilearen zein itzultzailearen ibilbideak jarraitzeko gogoia pizten duena.

Manu Lopez Gaseni

12 +



El príncipe de la niebla
Carlos Ruiz Zafón
Planeta, Madril, 2006

Gaizkiaren izenak

Carlos Ruiz Zafón idazle bartzelonarra *La sombra del viento* (2001) eleberriarri esker egin zen ezaguna, eta best seller bihurtu. Argitaratu zuen lehen eleberrria, ordea, gazteentzat idatzi eta Edebé saria jaso zuen 1993an: *El príncipe de la niebla*, hain zuzen. Garai hartan ez zuen oihartzun handirik sortu, harik eta helduentzako aipatu idazlan arrakastatsu haren eraginez, bigarren edizio duinago batean argitaratu eta irakurleria zabalagora heldu den arte.

Egileak edizio berriaren atariko oharrean aitortzen duenez, gazteentzako eleberrri hau idatzi zuen garaian ez zekien gauza handirik generoaz; hala ere, topikora joz, nerabea zenean «irakurri nahi izango zuen liburua» idazten ahalegindu zen. Horrek garbi erakusten du, nire ustez, gazte literaturaren eta helduentzako literaturaren arteko muga ez dela batere garbia; askotan, nahikoa dela buruan daukazuen istorio horri protagonista gazte bat jartzea, edo istorio hori irakurlearen batez besteko adineko norbaiten ikuspegitik kontatzea.

El príncipe de la niebla misterio edo enigma baten inguruan eraikitako eleberrria da eta, narratzaile orojakile baten bidez kontatua den arren, zati handi batean hamahiru urteko mutiko

baten ikuspuntua ematen da. Max izeneko gazte hori, ordea, ez da istorioko protagonista, lekuko pribilegiatu bat baizik. Misterioak, gainera, naturaz gaidiko indarrekin du zerikusia, eta elementu onirikoekin nahasian agertzen da.

Kontakizuneko koordenadak lauso samarrak dira: Bigarren Mundu Gerran garaian jazotzen da, Ingalaterrako hegoaldeko kostaldeko herrixka batean. Hala ere, flash back batzuen bitartez, istorioa XX. mendearen hasieran hasi zela jakingo dugu. Eta Max gaztea «halabeharrez» suertatzen da istorioaren amaiera gertatuko den tokian (liburuaren hasieran, Maxen aitak hurrengo egunean bizilekuz aldatuko direla jakinarazten dio familiari, azalpenik eman gabe).

Narrazioa bideratzen duen elementu nagusia pertsonaia ilun misteriotsu bat da, nortasun eta itxura desberdinak hartzen dituena. Nolabaiteko magiaren bitartez jendearen nahiak betetzen ditu, baina, trukean, haren zerbitzari bihurtzen dira mesedeak jasotakoak. Pertsonaia hori ez dago oso ondo itxuratuta, nahita seguruenik, eta denbora aurrera joan ahala gero eta bortitzago bihurtzen da. Deabrua da, noski, baina ikus-entzunezkoetako oihartzun askorekin: noiz «Highlanders» filmeko hilezko gaiztoarena, noiz «Batman» istorioko Joker pertsonaiaren histrionikotasuna.

Eta istorio nagusi horren inguruan beste batzuk azaltzen dira, hala nola, Maxen arrebaren eta deabruak eraman nahi duen mutilaren arteko maitasun istorioa, edo estatuen lorategia eta hilerrria bezalako elementu gotikoak, edo Kopernikoren liburuarena, edo zinemaren bidezko flash back-ak... Horietako batzuek, misteriozko giroaren trataerarekin batera, Zafón-en iturrietako bat izan litekeena dakarte gogora, Joan Manuel Gisbert, gazteentzako fantasia bikain landu duen aurreko belaunaldiko idazle bartzelonarra.

Ongi kontatutako istorioa izanda ere, *El príncipe de la niebla* eleberririk baditu, egileak arestian aipatutako oharrean aitortu bezala, idazle hasiberrien arazo batzuk: aukera lexiko desegokiak, gehiegizko azalpenak elipsiek hartu behar zuten tokietan, eta, batez ere, irakurlea nahasten duen anakronismo bat baino gehiago, gerra garaiko kokapenarekin zerikusia dutenak.

M. L. G.

Luxoreko misterioa

Bjorn Sortland

Ilustratzailea: TROND BREDESEN

Itzultzailea: AITOR ARANA

Ibaizabal, Bilbo, 2008

Kultura eta misterioa uztarturik

Liburuaren azalari begiratuta irakurleak baditu honen nondik norakoaren berri; izan ere paratstuak, Genetteren terminoa erabiliz, oso argiak dira kasu honetan. Izenburutik abiatuta badakigu misteriozko obra baten aurrean gaudela, eta gainera Egipton, Luxor hirian hain zuzen, kokaturiko istorioa kontatzen zaigula. Hori gutxi balitz irudiak neska gazte bat bahitzen duten bi gaizkile erakusten digu, eta «Arte ikertzaileak» saileko bigarren liburua dela ere ikus daiteke azalean.

Gazteak protagonistak, misterioa, neska bat —gutxienez— protagonista eta ekintzez beteriko liburua dela ematen du. Eta espektatiba horrekin hurbiltzen dena, harrera estetika teoriarantz aldatzen den bezala, ez da damutuko, bere itzaropena, espektatiba, betetzen dela ikusi ahal izango baitu.

Norvegiako familia bat da «Arte ikertzaileak» bilduma honetako protagonista. Ama arte irakaslea da eta aitak bidaia-gidaliburuak idazten ditu. Konbinaketa horren ondorioz erraz uler daiteke familiak arte monumentuak dauden inguruetara eginiko bidaiak. Eta hain zuzen lau bidaiak osatzen dute saila: Lehena Veneziaara, bigarrean Egiptora, ondoren Kanbodiara eta azkenik New Yorkera.

Liburu guztiak erlaziozaturik daude, bata bestearen ondoren kontaturik daude; are gehiago narratzailea, David gazteak, hamar urte ditu hasieran eta hamaika bukaeran; hots, eboluzio bat eman dela dirudi. Hasieretan Dabiden amets bat dugu



eta ondoren oportetara joan diren lekuaren berri. Familiakoen artean zozketatu zuten nora joango ziren oportetara, eta kasu honetan anaia txikiak aukeratutako herrialdera joatea tokatu zaie: «Thor izan zen, egia esateko, Egiptora joanarazi gintuena. Familiako kide bakoitzak bidaiak joateko leku bat aukeratuko zuela erabaki genuen» (11.or.).

Narrazioak, normalean oso kapitulu laburrez osaturik dauden kontakizunak, erraz irakurtzeko modukoak dira, eta umoreak (Faraoiaren mada-rikazioa edo momiaren txantxa amaieran, baina batez ere kontakizunean zehar tonuan azaltzen dena), ekintzen bizitasunak, misterioak... ederki laguntzen dute horretan, bai eta Aitor Aranaren itzulpen zuzenak.

La invención de Hugo Cabret

Brian Selznick

Ilustratzailea: BRIAN SELZNICK

SM, Madril, 2007

Zinema lantegi

Brian Selznick estatubatuarra diseinuko ikasketak egin eta berehala hasi zen irudiak eta hitzak batzen zituzten liburuak plazaratzen.

Orrialde honetara ekarri dudana liburua, egi-
learen azkena izateaz aparte, nahasketa horren

erakusgarri bikaina da. Azalpen zehatzagoa merezi du, hala ere: ez da ilustrazioak dituen liburua, ez da album ilustratu bat ere; bertako istorioa bi kodeak erabiliz kontatzen da, noiz irudi-sekuentzia luzeak, noiz hitzeko kapitulu batzuk. Bien arteko orekaren ideia bat egiteko, esan dezadan marrazkiek (eta argazki bakanen batek) betetzen dituztela liburuko 533 orrialdeetatik 300 bat. Irudiak arkatzez egindakoak dira eta orrialde bikoitzekoak dira (150 bat marrazki, hortaz). Hasieratik, egileak zinema-areto batean gaudela pentsatzeko proposamena

Aipaturiko elementu horiez gain liburuan badira haur eta gazteen unibertsoko beste kontakizun eta filmen aipamenak, erreferente horiek, Norvegiako idazle batek erabili arren, oso ezagunak eta zabalak baitira gure gizarte gero eta globalizatuago honetan. Horrela, *Tintinen abenturak*, Disneyren Donald Ahatea edo *Toy Story* filmari buruzko erreferentziak ikusi ahal ditugu nobelan zehar. Baina horien ondoan kontakizunean pisu handiena hartzen duena bertako kultura eta artea da. Luxoren kokaturiko istorio honetan, Egiptoko ohiturak eta faraoien garaiko istorioen berri izan dezakegu helburu didaktikorik gabe, narrazioa girotzeko eta Arte ikertzaileak beren abenturetan kokatzeko.

Baina misteriozko liburua dela aipatu izan dugu arestian, eta honetan ere, horrelako liburuetan, sailetan, ohikoa den bezala bada gaizkile bat (hasierako liburua ia nabari ez dena baina sailak aurrera egin ahala gero eta nabarmenagoa izango dena) arte lapurrak erabiltzen dituen eta Daviden familiarekin behin eta berriro topo egiten duena. Azkenean, liburuetan aurrera egin ahala Daviden familiak gero eta arrisku (eraso) handiagoak jasaten ditu, Angkoren eta New Yorken hiltzekotan daudelarik.

Oro har erraz irakurtzen diren liburuak dira, koloretako ilustrazio ugari ederki hornituak, eta herrialde ezberdinetako kultura, ondarea eta ohiturak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen diguten misteriozko obrak. Eta ziur gaude bildumako liburu bat irakurtzen duenak, Jauseek dioen bezala, beste nobela poliziako batzuk irakurtzeko, bere ikertzailea egoera berrietan ikusteko gogoia izango duela.

Xabier Etxaniz Erle

egiten digu, eta berehala, «*cuando el sol del amanecer aparece en la pantalla, la cámara les llevará en un zoom vertiginoso hasta una estación de tren en el corazón de la ciudad*». Alderdi grafikoarekin amaitzeko, eskuartein zinemako fotogramak ditugulako sentsazioa irudikatzeko, orrialdeetako ertzak beltzak dira.

Liburuan kontatzen den istorioa, berriz, Parisen kokatuta dago, 1931 urtean, eta arestian aipatutako tren-geltoki hori Orsay da, gaur egun museo bihurtutako eraikin huraxe bera. Protagonista

Hugo izeneko gaztea da: umezurtz iheskor bat, tren-geltokiaren gaineko pasabideetan bizi dena. Haren osaba ere, geltokiko erlojuetako mekanismoak doitzeko arduraduna, han bizi zen; baina orain hilda dago, inork ez badaki ere, eta Hugo arduratzen da osabaren lanaz. Barrunbe hartan, Hugo ez ezik, bere sekretu handia ere ezkututzen da: aurreko mendeko automata hondatu bat, Hugo konpontzen ari dena. Giza itxurako pampina bat da, atril baten aurrean eta luma bat eskuan, idazteko plantan.

Ikusten denez, planteamendua zirrargarria da, eta espektatiba oparoak sortzen ditu irakurlearen baitan: konturatuko da tren-geltokiko arduradun zorrotza hango erloju guztiak ume baten eskuetan daudela? Lortuko du Hugok automata konpontzea? Zein ote da beste garai bateko automata hark idatziko duen mezua?

Liburua aurrera doan neurrian, pertsonaia bitxi gehiagok hartuko dute parte: jostailu-denda bateko arduradun haserrekorra, haren iloba Isabelle, begi bakarreko liburu saltzaile bat... Sekretuez eta intrigaz gainezka datorren liburua da, eserialdi batean irakurtzen dena.



Automataren lumak gordetzen duen sekretua, ordea, ez da, irakurle honek espero zuen bezala, testuen testua, ezta Borgesek iragarri zizkigun haietako bat, ezta jolas metafikzionalen

baterako bidea (hori guztia gehiegi eskatzea zen, ohartu da azkenean irakurlea). Marrazkiak ordainetan. Jakina. Nola ez zitzaion lehenago bururatu! Irudiak testuak adina garrantzia duen liburu horretan, marrazki baten bitartez ezartzen da espero gabeko testuartekotasun bitxi bat, zinema mutuko aitzindarietako baten obrarekin hain zuzen ere. Eta une horretatik aurrera, liburua Georges Méliès zinemagileari egindako omenaldi bihurtzen da, *happy end* magikorako bidea egin bitartean: «En aquel preciso instante, Hugo sintió que todos los engranajes del mundo se colocaban en su sitio. En algún lugar, un reloj tocó las doce, y las piezas que componían el futuro de Hugo encajaron suavemente» (507. or.).

Aitortu behar dut intentsitate handiko istorio bat izan arren, testu idatziaren kalitatea ezta-baidagarria iruditu zaidala oro har, zergatia ondo jakin gabe: egilea marrazkigileagoa delako idazle baino, itzulpena ez delako jatorrizko testuaren mailan egon, ala, besterik gabe, beste zerbait espero nuelako. Gauzak horrela, irakurle gehiagoren iritzia zain geratzen naiz.

Manu Lopez Gaseni

Hiriko baratzean

Jabi Santa Cruz

Ilustratzailea: JOSEMI GOYENA

Pamiela, Iruñea, 2008

Txikitasuna aldarri


«Bakoitzak badu bere gaia./ Nire gaia loreak dira;/ Loreak eta Txoriak». Hitz horiekin hasten da Txinako printzesa poema. Eta poetak agerian uzten ditu bere kartak, eta bere obsesioak. Ez dugu ahaztu behar Jabi Santa Cruzek lehendik *Moko bilduma* izeneko poema sorta erakargarria argitaratu zuela, orduko hartan hegaziak ardatz harturik. Hala ere, oraingo honetan loreak dira nagusi, baina ez deskribapen hutsean geratzeko, ezpada bere barne estrata berdea, biguna eta ilunak agertzeko. Liburua argitaratu den bildumarako keinu eta guzti, honela dio beste poema batean: «Tamaina txikiko testuak ditut gogokoan,/ olerki xumeak,/ ia ezer adierazteko ahalmenik gabe/ sorturikoak./ Loreetan ere,/ niminoenak ditut,/ batez ere,/ begiko./ Zuriak,/ moreak,/ arrosak.../ baina txiki-txikiak».



Naturako poeta ageri da Jabi Santa Cruz, baina ez zentzu gaitzesgarrian. Poemaren batekin baino gehiagorekin, guri Kim Ki Duk-en *Primavera, verano, otoño, invierno*. . . *Primavera* filma etorri

zaigu gogora; hartan ere, Natura zen espazio nagusia, baina gizakiaren «goranahi» eta «beherabehar» guztiak agertzen ziren, normalean hirian kokatu izan diren pasioak eta ametsak (ez ahaztu liburuaren izenburua ere: «Hiriko baratzean»). Eta filma bezala, bere poesia preziosista da, finezia handikoa, xehetasuna eta txikitasuna dohain duena, eta hor bere pasioak eta ametsak, bere buruarekiko eta besteekiko harremanak agertuko dizkigu, baina modu nabarmenean baino gehiago, oso modu iradokitzailean, hala nola eskaintzen zaigun liburua bera ere, zeren Josemi Goyenaren azalarekin eta antzinako hainbat pintoreren obren erreproduzioekin, liburua gutizia benetan ederra baita... gazte nahiz heldu, baina edonola ere, irakurle mokofinentzat.

Laura Sagastume



Bai baina ez baina bai

Pasqual Alapont
Itzulpena: ANTON OLANO
Elkar, Donostia, 2007

Baietz ba

Pasqual Alapont idazle valentziarra oso eza-guna da katalanezko haur eta gazte literaturaren eremuan, eta titulu bat baino gehiago du euskaturik, «Martaren infernua» eta «Ardi beltza», adibidez, eta arlo horretako sari garrantzitsu batzuen jabe da. Gainera, gidoigile eta aktore gisa ere lan egin du.

Bai baina ez baina bai gazteentzako eleberrian valentziar gazte talde batek bi irakaslerekin batera Mallorcara egindako ikasketa-bidaia du kontagai (jatorrizko titulua askoz esplizituagoa da: *Fi de culs a Mallorca*; euskarazko izenburuaren arrazoia, berriz, gaztelaniazko itzulpenaren tituluaren bidez bakarrik uler daiteke: *Si pero no pero sí*). Gazte taldea txikia da, eta irakurleak berehala jasoko du bakoitzaren rola: koittadua, metrosexuala, adarjolea, despistatua, maitemindua... Irakasleen artean, berdin: gizonetzako ikasleengandik hurbil sentitzeko beharra du, etengabe haien oniritzia bilatuko balu bezala (hortik ikasleek jarritako ezizena: «Niri Toni Deitu, Gazteok, Zuetako Bat Naiz Eta»); emakumezko irakaslea, berriz, zorrotz-zorrotza da, eta ez du bat ere pasatzen uzten. Antzerki lan batekoa izan zitekeen pertsonaia-galeria oso bat,

14 +

bistan denez. Bidaia *ferry* itsasontzian hasten da, eta egoera eta elkarrizketa barregarriak etengabe-koak dira lehen unetik bertatik. Mallorca uhartean daudela, kapituluaren izenek gidaliburu turistikoa irudikatzen badute ere, aurrera doaz irakasleen eta ikasleen arteko arazoak eta gaitzulertuak, eta ikasketa-bidaia bera ere pikutara joango dela ematen du. Liburuaren azkenaldean irakasle batek egindako aitortza batek erabat aldatzen du gertakizunen ikuspegia, eta ikasleen esku-hartze bati esker konponbidean jarri da dena.

Eleberri osoari darion umorearen atzetik, ordea, nerabeek nortasun propioa bilatzeko ahaleginetan fokutzen da testua. Iniziazioaren eskema klasikoari jarraituta, bidaiatik bueltan datorren gaztea ez da jada abiatu zen berbera. Giltzetako bat gazte narratzaileak *ferry*ko zerbitzari zahar batekin izandako bi elkarrizketak dira, bata joaneko bidaiaren eta bestea itzulekoan. Lehenengoan, hauexek dira zerbitzariak gazteari emandako aholkuak: «Kasu egidak, seme, ez lotu heure burua, bestela, gutxien espero duanean, sinatua izango duk hogeita hamar urteko hipoteka, eta orduan bai komeriak! Bizi bizitza, joan hadi atzerrira, errolda hadi merkataritza-ontzi batean, lan egin ezak petrolio-eremu batean»; eta, aurreraxeago: «Ez ahaztu, gazte, horixe duk hilobira eraman dezakegun aberastasunik handiena: kontatzeko moduko istorio bat izatea» (22.-23. or.).

Aurrekotik astebetara izandako bigarren elkarrizketan, berriz, mutilak askoz argiago ditu gauzak, maite duen neskekin egon nahi duela erabaki du, eta neskek oparitutako eraztuna erakutsi dio zerbitzariari «desafio-aire halako batez». Orduan erori da zerbitzariaren itxurazko gogortasuna: «Txantxetan ari ninduan, motel ez hadi horrela jarri horregatik –zerbitzariak eraztuna aztertu eta txistu egin du, ni kontentatzeko edo—. Azken batean, ez zagok Nairobira edo Alaskara joan beharrik kontatzeko moduko istorio bat izateko, ezta?» (264. or.).

Irakurle gazteak bete-betean harrapatuko dituen eleberria da *Bai baina ez baina bai*, eta esku trebez euskaratua dago. Baina atsegina erabatekoa izan dadin, oso ondo etorriko litzateke testu osoan barreiatuta dauden akats tipografiko ugariak lehenbailehen zuzentzea.

Manu López Gaseni



Hada baten heziketa

Didier van Cauwelaert
Itzulpena: JOSU ZABALETA
Erein, Donostia, 2008

Maitasun harremanez

Hainbestekoa da haren idazkierik darien baikortasuna, Didier van Cauwelaert «gauzak gaizki badoaz, okerrago joan daitezke» dioen eserari kontra egiteko jaioa dela dirudi.

Letren arloan ia denetarik egina da Van Cauwelaert nizarra: eleberriak, antzerki-lanak, zinema-gidoiak... arrakasta handiz eginak ere.

Nik dakidala euskaratu zaion lehen eleberri honetan (*L'Éducation d'une fée*, 2000), aipatutako bide beretik jo du egileak: Nicolas Rockel jostailu-asmatzaileak bere bizitzako emakumea (eta semea) ezagutu ditu, halabeharrez, Air Franceko autobus batean; elkarrekin urte batzuk eman ondoren, baina, Ingrid emazteak utzi egingo duela esaten dio, zergatik eta «maite duelako». Nicolas krisi sakonean sartzen da, gertatutakoa ulertu nahian, eta hipermerkatu batean ezagututako kutzazain batengana joaten hasten da, bertan erositako edozeren aitzakiarekin. Neska hori, César, Irakeko kurdu bat da, bere tesia amaitzera Parisa joanda. Iraken aurkako enbargoak, ordea, César-ek Sorbonan egindako eskabidea geldiarazi du, eta gauzak okertuz gero, paperik gabe geratuko da.


Horixe da, Raoul zortzi bat urteko umearen bitartez, hada edo maitagarria izateko prestakuntza jasoko duena (eleberriko tarte txikiagia hartzen duena, aukeran).

Narratzaile zereginak Nicolasi eta César-i dagozkie, txandaka, eta bi piezako puzzle simple hori arazorik gabe ahokatuko du irakurleak. Bertan gurutzatuko dira «zauritutako» bi pertsonaien sentipenak, ederki azalduak, Raoul umearen xalotasunarekin batera.

Eleberria, esan bezala, baikortasunaren errei-bindikazioa da, eta atxikimendu unibertuala jasotzeko «benetako gertakizunetan oinarritua» delako leloa bakarrik falta zaio: Nicolas eta Ingriden arteko maitasuna perfektua da; Raoul ume perfektua da, Nicolas aitaorde perfektua den gisa berean. Nicolas eta Ingriden arteko krisia konponduko da, César-en arazoak ere konponduko dira, eta Raoul pozik geratuko da bere siniskerietan. Irakurketa amaitu ondoko irribarrea zineman *Mamma Mia!* ikusi dutenek erakutsitakoaren neurrikoa izango da.

Hada baten heziketa ez da berez gazteentzako eleberrri bat, baina hainbat best seller-ekin gertatzen den bezala, iragazki serio samar bat gainditzeko zailtasunak dituenez, Perzebal bezalako gazteentzako bilduma batean sartu dute, «*young adults*» direlakoei zuzenduta. Edonola ere, esan bezala, neguari aurre egiteko irakurgai duina da.

M. L. G.



Siete cuentos crudos

Ricardo Gómez

Ilustratzailea: JUAN RAMÓN ALONSO
SM, Madrid, 2008

Bakana eta bikaina

Azaletik beretik gordintasuna zabaltzen du —eta samurtasun moduko bat—, baina batez ere iradokitzailea da. Neskatala bat —zapia buruan— idazten edo marrazten ari da, baina itzal bat nagusitzen da: kaio bat akaso, edo bakearen usoa, edo hegazkin militar bat, F-16 bat akaso. Izenburua ere gordina du: *Zazpi ipuin gordin*, eta gordinagoa azpiztitulua: *Aunque este no sea un buen sitio para nacer*. Gordintasunarekin batera, plazera zabaltzen duen liburua da: ez da pitxiplastikozkoa, ez du margo fosforargitsurik, ez da bilduma bateko ohiko ale bat. Azal gogorarekin dator, eta zuri-beltzen gainean, izenburuaren gorri sotila ageri da.

Ez oso aspaldi, Iban Zalduari irakurri nion azken aldian haur literatura gozotik zebilela, bortizkeria edo gogortasuna albora utzirik. Biblia zekarren hizpidera, Liburuaren Liburuaren moldaketak: juduek lortu dute Egiptotik ihes egitea, baina narrazioak ez du kontaktzen, itsasoko urrezko bi harresiak elkartzean, soldadu egiptoarrak ito egin zirela. Aitzitik, ez da hori Ricardo Gómez idazlearen helburua: gordintasun hori begietara ekarri nahi izan digu, azaleratu —oraingoan aurreko lanetan baino gehiago, gainera.

«*El perro de Goya en Beirut*» du izena zazpi ipuin gordinen arteko lehenak, eta aspaldian sentitzen ez genuen plazer literarioa dastarazi digu. Labur, ia telegrafikoki, paralelismoz betetako kontaketa da berea, eta zein ederra Goyaren koadro ospetsuaren antzeko zakurraren eta neskatilaren arteko

lotura, eta zein ederra amaiera, fantasiotsua, baina anabasarik beltzenezan itxaropen izpi bat zabaltzen duena.

«El hombre que abrió camino al mar» ipuinean jabetzen gara herri xehe, herri xehetuen istorio ahaztuak hartu dituela ardatz —Sahararen gaia ez da berria idazle madrildarraren bibliografian—. Eta Bagdadera eramango gaitu hurrengo ipuin gordinean, hango postari baten berri emango digu: «*Saludó a Marian, a Hafez, a Janisaa y a Merni, las mujeres que clasificaban las cartas. Fue a su montón, bajo un cartel que decía Distrito 27. En silencio, revisó uno a uno los sobres e hizo tres montones. En un lado, los muertos. En otro, los desaparecidos. En el tercero, los que quizá seguían allí*». Espiritu bereko ipuina da minen eraginez hanka edo beso faltan dabiltzanen «*La ofrenda del señor Man*» ipuina ere, edo «*El primer libro de la selva*», non paralelismoa lehoi eta gizakien bi familiaren artekoa den . . .

Ipuin gordin konprometituen testuinguru horretan, benetan nabarmentzekoa da «*Mamá, cómprame un cocodrilo*» lana. Aurreko ipuinetako esaera zaharrak eta erran zuhurrak iragarkietako hitz joko hutsalak bilakatu dira hemen. Lehen irakurraldian, hain zuzen ere horregatik, pentsa liteke ipuina lekuz kanpo dagoela, baina apur bat pentsaturik, ohartzen gara kontraste horrexek ematen diola indarra, eta, funtsean, Mendebaldeko gure gizartea ari dela kritikatzeko. Baina kritikarik gogorrena, implizitua bada ere, «*El fantasma del capitán Cook*» ipuinean dator.

Amaitze aldera, itzela da hitzaren eta ilustrazioaren arteko sinbiosia: gordintasuna poetikotasunarekin batera datorrigu, collageetan, marrazki eta argazki zuri-beltzetan, akuareletan . . . Alonsoren artelana bikaina da eta liburua gutxitan bezalako obra artistikoa bihurtu digu, album bat ia, baina gazteentzat —eman dezagun 14 urtetik aurrerakoentzat— egokia izan daitekeena. Apustu ederra, bai egileen bai argitaletxearen partetik, kontentagaitza, bakana eta bikaina, irakurle gaztea aintzat hartzen duena, irakurleago egingo duena.

Laura Sagastume

Zer da, ba, maitasuna?

Miren Agur Meabe

Ilustratzailea: CONCETTA PROBANZA

Elkar, Donostia, 2008

Zer da, ba, maitemina?

Miren Agur Meaberen liburu berria eskuartearen hartu eta formatuari erreparatuta ezohikoa eta bitxi samarra begitandu zait, hori baita lehenengo begiratuan irakurlearen atentzioa erakartzen duena, formatua alegia, berezia baita alde horretatik. Nondik begiratuta, liburuaren alderdi batean *Zer da, ba, maitasuna?* izenburuaren galderaren hariari loturik neska gazte baten ahotsa kontari ari zaigu eta, itzuliko aldean, beste ahots bat, mutil batena, galdera beraren erantzunaren arrastoan. Ahots biak ala biak ere ezberdinak dira, ondo bereziak, eta, aldi berean, elkarren osagarri eta uztarri berari loturik kontagai den amodiozko istorioan zehar. Irakurlearen hautua izango da, hartara, liburua nondik ireki, biotatik zein ahotsi bide eman irakurketari ekiteko garaian.

Azalez soilik ez, mamiz ere liburu honek badu beste berezgarririk, bi genero elkartzen baitira orrien joan-etorrian, narrazioa bera eta poesia. Parada ona, beraz, gazteen artean ahaztu sa-



marturik den poesiaren generora hurreratzeko, orokorrean, poema laburrak eta, beren laburrean, iradokitzaileak aletu baititu Meabek nobelaren kapitulu bakoitzari akabantza emateko.

Bi gazteren ahotsak mintzo direla aipatu dugu arestian; nor dira, baina, protagonista horiek?

Zertan dihardute? Gazte nerabeak dira biak eta, agerian gelditzen denez, neska poeta da (... eta hori garrantzitsua da niretzat, ni poeta naizelako) (12.or.), eta argazkilaria. Mutila, berriz, musikaria eta letren egilea (*Niri ere gustatzen zait idaztea, nire gauzak, kantuen letrak.* (11.or.-). Biak ere ikasleak, institutu berean ikaskide. Pertsona-izenik ez dute erabiltzen elkarren berri emateko. *Mister X* gaitzizena darabil neska mutilak ari denean, eta *Berezi* mutilak neska izendatzeko. Nork bere gertakariak, amodio-kontuak, sentimenduak, askotariko kezakak, bizi-pozak eta bizitzaren gazi-gozoak kontagai jarri ditu testu laburrez osatutako hogeita zortzi ataletan. Narratzaileak, beraz, neska eta mutila dira, euren ahots narratiboak, eta euren eskutik egingo du irakurleak orrietan aurrera.

Eta halako liburu bereziak marrazki bereziak behar zituen, ezin bestela izan. Concetta Probanza marrazkilaria esku finez aritu da apainduraren, askotariko teknikak erabiliz. Irudi surrealistikak eta abstraktuak sortu ditu batzuetan, sinbologiaz beterikoak, *collage* antzekoak beste batzuetan. Guztiak ere landuak eta iradokitzaileak.

Xabier Olaso

BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.
Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....
Helbidea:.....
Herria: Posta-kodea:.....

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.
Euskadiko Kutxaren honako kontu-korrontean sartu:
3035 0242 68 242 0 00247 I
eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkartea. Zemoia, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487